


HASI DIRA IKURRAK AGERTZEN EUSKARA LEHENETSITA DAUKATEN PAZIENTEEN BOLANTEETAN

 Osakidetza TXAGORRITXU OSPITALEA HOSPITAL TXAGORRITXU JOSÉ DE ATXOTEGUI, S/N	Historia: 808023	CIC: 10245145	Jaioteguna: 26/02/1962
	Adina: 55	Sexua: Hombre	F. Naci.:
	Izena: PEDRO MARIA GONZALEZ HERNANDEZ		
	Zerbitzua: CARDIOLOGÍA		
	Atala: CARDIOLOGIA GRAL.		
	Erizaintzako Unit.: UE5C	Ohea: 5172	

Eskari horixe egin zuen joan zen udan Donostialdea ESiko Errehabilitazioko Zerbitzuak, eta, behin Osabide Globalen egin beharreko aldaketak eginda, euskararen «e» ikurra txertatuta ageri da, besteak beste, kontsultarteko eta eboluzioko orrietan.

ODOL-BANKUEK EMAILE GAZTEEN BEHARRA DUTE

Miguel Angel Vergak eta Jose Antonio Garciak, hurrenez hurren, EAEko eta Nafarroako Odol eta Ehunen bankuko zuzendariak adierazi dutenez, gazteek badute odola emateko joera, baina ez dute jarraitutasunik. Gainera, gero eta adineko gehiago dago, eta, beraz, odolaren beharrizana duen eta eman ezin duen jende gehiago. Populazioaren piramideak, bada, eragina du horretan ere.

Odol-faltarena Europa osoan gertatzen ari den fenomeno bat da. Abenduan, esaterako, Kataluniako odol-emaileen elkarteak sekulako kanpaina egin behar izan zuen, odolik gabe gertatzen hasi zirelako. Alemaniako bankuak ere esana du 2020tik aurrera arazo itzela izango dutela. Horregatik, orain hasi behar da konponbidea jartzten: emaile iraunkorrak eta konstanteak lortu behar dira.

LEXIKOA ETA TERMINOLOGIA LANTZEKO BALIABIDEAK AURKEZTU DITU EUSKO JAURLARITZAK

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak erreminta-sorta bat aurkeztu berri du euskararen erabilera bultzatzen jarraitzeko: Elhuyar Hiztegiaren bertsio berria, hiztegi digital horren aplikazio berria, bederatziz hiztegi terminologiko, *Hiztegiabar* plug in-a eta Hizketa-ereduak argitalpenaren aplikazioa gailu mugikorretarako.

Hiztegi terminologiko horietako hiru osasun-arlokoak dira: [Traumatologia](#), [Hiesa](#) eta [Mendekotasuna](#). Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak eta IVAPek finantzatu dituzte hiztegiak, eta UZEIk egin ditu, Eusko Jaurlaritzarekin izenpetutako kontratu baten bidez.



OSASUNAREN ZAINKETARI BURUZKO MEZUAK IPINI DITUZTE ZABALGANAKO OSASUN-ZENTROAN

Zentroko administrazioko, erizaintzako, familia-medikuntzako eta pediatriako profesional guztiek hartu dute parte testuen hautaketan eta horien erredakzioan, euren pazienteei kontsultara datozean ematen dizkieten aholkuak jaso ondoren.

Mezu errazak dira, batzuk jakinak eta oro har praktikoak eta lagungarriak, geure osasuna hobeto zaindu dezagun eta osasun-sistemarekin harremanetan modu eraginkorragoan jar gaitezen. Euskaraz eta gaztelaniaz idatzita daude eta zentroaren kanpoalde zein barrualdetik ikus daitezke.

“

Medikamentuek ez dute DENA zaintzen



eta inoiz ez dira zeure buruaren zainketaren ordezko izango.

”

Santi Mintegi Raso

Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko Larrialdi
Pediatrikoetako Zerbitzuko pediatra

«Frogatuta dago bronkiolitis gehienetan ez dela tratamendurik behar»

Azaro bukaeratik otsail hasiera bitarte, zero eta bi urte bitarteko 900 haur artatzen dituzte batez beste bronkiolitis-zantzuekin Ezkerraldea-Enkarterri-Cruces ESIko larrialdi-zerbitzuetan. Bertako pediatra da Mintegi (Bilbo, 1962), eta, dioenez, posible da paziente gehienak tratamendu medikorik edo botikarik gabe sendatzea. Horren inguruan herritarrei berri emateko kanpaina egin dute neguko hilotan.

Bronkiolitisa, gutxiago gehiago da, zein da kanpainaren leloarekin zabaldu nahi izan duzuen mezua?

Arnasteko zailtasunak dituzten haur txikien guraso askok, kezkatuta, laguntza eske jotzen dute ospitaleetara, eta laguntza hori botikekin lotzen dute. Bronkiolitisa-kasuetan baina, tratamendu medikoek duten eragina ez dago frogatuta. Horregatik, gure helburua izan da, tratamenduak gutxitzeaz gain, familiekin osasun-heziketa bultzatzea. Bronkiolitisa etxean senda daitekeela erakutsi nahi izan dugu, han neurri erraz batzuk hartuta. Hala, aldaketa nabarmena izanik, iruditzen zitzaigun ezinbestekoa zela kanpaina bat egitea. Otitis- edota amigdalitis-kasuetan aldatzea lortu zen bezala, aldaketa era antolatuan gauzatzea zen gure asmoa.

Orain arte erabilitako moduak aldatu nahi dituzue, beraz.

Osasun-heziketak talka egiten du orain arte egin izan diren tratamenduekin. Urtero hainbat haur artatzen ditugu eta gehienak zerbaiten bila etortzen dira, bronkio-zabaltzaileak, kortikoideak, antibiotikoak edo mukolitikoak. Horregatik, urte luzeetan izandako joera apurtzeko beharra ikusi genuen. Bronkiolitisa sendatzeko hainbat tratamendu probatu

izan dira, bai tratamendu medikoak eta bai medikoak ez direnak ere, eta frogatuta dago bronkiolitis gehienetan ez dela tratamendurik behar. Are gehiago, gerta daiteke guztiz beharrezkoa ez den botika emanda albo-ondorioak jasateko probabilitatea handitzea. Ziur gaude sendagairik hartu gabe emaitza hobekak lortzen direla. Gainera, haurrek hobera egin dezakete etxean, jariakinak xurgatuta, hartuak zatikatuta edo antitermikoak emanda.

Tratamenduak gutxitzeko, heziketan jarri duzue arreta. Nahikoak al dira ekintza horiek haurrak sendatzeko?

Larrialdietan bronkiolitisa dela-eta artatzen ditugun haurren artean % 10 ospitaleratu behar izaten da. Haur horiek ospitaleetako sistema osagarriak behar izaten dituzte arnasa errazteko. Hala ere, ez dute botikarik behar izaten eta gainontzeko % 90 etxean sendatzen da sendagile batek behatu ostean. Aipatu beharra dago, tratamenduarekin edo gabe, ospitaleratzeeen ehunekoa berbera dela. Horrek erakusten du lehen ematen ziren sendagaiak eman gabe ere emaitzak berberak direla, baina horrek ez du esan nahi larria izan ez daitekeenik, zeren ospitaleratzeko direnen artean batzuek gaizki pasatzen



dute. Arrisku handieneko pazienteak hila-bete bat edo bi dutenak dira. Hala ere, oso arraroa da gaur egun Europako mendebaldean ume bat bronkiolitisagatik hiltzea.

Zein dira bronkiolitisaren sintoma nagusiak?

Haurrek lehenengo bi urteetan jasaten duten infekzio biral bat da bronkiolitisa, epidemietan arnas birus sintzitalak sorturikoa. Oso ohikoa izaten da hilabete horetan, hau da, azaro amaieratik otsail hasiera bitarte. Gripearean aurretik agertzen da.

Katarro arrunt batekin hasten dira; doministikuak, eztula eta sukarra izaten dute. Infekzioa bronkioetara jaisten bada, mukia sortzen da, bronkioak estutzen dira, eta arnasa hartzeko zailtasunak izaten dituzte. Larria denean, haurrei zaila egiten zaie jatea eta lo egitea, eta erretxinduta egoten dira. Sukar handia izaten dute.

ASKOZ
GARRANTZITSUAGOAK
DIRA AZALPENAK
SENDAGIAK BAINO



TRATAMENDUAREKIN EDO GABE, OSPITALERATZEEN EHUNEKOA BERBERA DA

Normalean, gaixotasunak 6-7 egun irauten du, baina gehiago ere luza daiteke. Egoera astuna izaten da sarri, umeeek arreta handiagoa eskatzen baitute.

Kanpainarekin lortu al duzue jendearengana iristea?

Hasieran beldur izan ginen jendeak nola erantzun zuten, baina oso erantzun ona jaso dugu; ondo ulertu da zabaldu nahi genuen mezua. Horrez gain, kanpainan jarritako kartelak irakurtzeko interesa agertu dute askok, eta bertako azalpenak ulergarriak egin zaizkie. Jendeari azalpenak emanez gero, ulertu egiten dute, eta zergatiak jakinda lasaiago joaten dira. Askok garrantzitsuagoak dira azalpenak sendagaiak baino. Horretarako, medikuek ere jarrera aldatu behar izan dugu; denbora gehiago eskaini behar izan diogu, guretzat ere ez baita erraza izan betiko ideia aldatzea. Oro har, kanpaina oso baikorra izan da guztiontzat.

Kartelak, txapak... Zer baliabide erabili dituzue kanpaina honetan?

Hedabideetan kanpainaren berri eman dugu eta ohikoak diren kartelak jarri ditugu korridoreetan. Kartelak jartzeak oso sinplea dirudi, baina larrialdi pediatrikoetatik familia asko igarotzen dira eta sarritan denbora asko eman behar izaten dute bertan. Haurrek izan ditzaketen gaixotasunez jabetu nahi izaten dute, eta kartelak irakurtzen dituzte.

Gainera, pediatrek txapa bat jarri dugu arropetan. Atentzioa ematen duen zer-bait izanik, gurasoek galdetu egiten dute ea zer den, eta aitzakia ona izaten da azalpenak emateko.

Bestalde, pediatrek eta ospitaleko langileek kanpainan egindako lana azpimarratu nahi nuke. Ospitalean gurasoekin harreman zuzena izaten dugu; urtero, 900 bat haur artatzen ditugu bronkiolitisagatik soilik, eta zuzeneko informazioa ematea zalantzak uxatzeko erarik eraginkorra da. Horrez gain, harremana indartu egiten da.

hizkuntza-baliabideak agenda

Osaturreren iraileko buletinean, hain justu ere, 23. zenbakian, zalantzak argitzeko eskuera dauzkagun baliabide batzuk aipatu genituen (Dudanet, Jagonet...), eta haien artean [Euskara teknika](#), Zientzia.eus webguneak eskaintzen duen zerbitzua. Bertan, zientziaren eta teknologiaren arloko hizkuntza-kontsultak egin daitezke eta, bidenabar, «Asteko hitzak» ataleko altxorra kontsultatu. Hona, adibide gisa, hor aspalditxoan azaldutako hitz batzuei buruzko informazioa laburtuta:

HIES

HIES, hies, GIB... nola idatzi behar dira? Gure inguruko erdaretan, *aids, sida, SIDA, VIH...* letra larritz nahiz letra xehez idatzita, denetik ikusiko dugu.

Hies hitza, euskaraz, hitz arrunt bihurtu da, eta HIES siglan du jatorria; hain zuzen ere, «Hartutako Immunoeskasiaren Sindromea» da sigla horren azalpena. Horrela bada, *hiesaren birusa, hies gaitza, hiesaz kutsatua edo guraso hiesdunen seme-alabak* esan eta idatz daitezke.

Hies terminoa ez da nahastu behar *GIB* (giza immunoeskasiaren birusaren laburtzapena) delakoarekin, ez dira eta sinonimoak. *GIBa* «Gizakietan hiesa eragiten duen erretrobirusa...» dela esaten da Elhuyarren Zientzia eta Teknologiaren Hiztegi Entziklopedikoan; sigla izanik, maiuskulaz idaztekoa da, eta, deklinabide-atzizkiak eranstea, marrarik gabe idatzi ohi dugu (*GIBak, GIBaren* eta abar).

GASTROENTERITIS

Gastroenteritis, gastroenteristis, gastroenteritis... zein da zuzena? *Gastro-* hori agian lotzen dugu urdailarekin (*gastritis, gastriko...*), baina zer da *-enteritis* hori?

*Gastroenteritis*aren sintomak ezagunak zaizkigu gutako askori, baina badakigu zehazki zer den?

Hitzaren etimologia azaltzeko, grekora jo beharra dago, *gastroenteritis* forma zuzen eta luzearen atzean sustraia grekoan duten hiru atal baitaude: *gaster* (urdaila), *enteron* (hestea) eta *-itis* atzizkia (hantura).

Hain zuzen ere, [Zientzia eta Teknologiaren Hiztegia](#) datorrenari erreparatuta, «aldi berean urdailari eta heste meharrari erasaten dien hantura-prozesua» da.

«Hestearen, batez ere meharraren, hantura-prozesua» denean, *enteritis* deitzen zaio.

Bide batez, gogoratu Osakidetzakook ere badugula geure zalantzak argitzeko txokoa OSABARren, euskaraz lan egiteko eskura daukagun tresnaren barruan, oraingoz e-Osabide aplikazioan bakarrik bada ere. Hona, adibide gisa, Osabarren jasotako galdera batzuk eta horiei emandako erantzunak:

Galdera: Gaztelerazko «cuña» hitzaren euskarazko ordain egokia zein izango litzateke testuinguru honetan?: «como colocar la cuña» (ohepean).

Erantzuna: pixontzi.

Galdera: «Orzuelo»ri txotorra edo begitxindorra esaten diogu. Nola esango genuke chala-ción?

Erantzuna: txalazion.

Zalantza: Se están celebrando las jornadas...Jardunaldiak egiten ari dira???

Erantzuna: ...jardunaldiak egiten ari dira.



2. HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIATZATZEKO PROBETARAKO 2018KO LEHENENGO DEIALDIA

Izena emateko epea: otsailaren 20tik martxoaren 6ra.

Aurreikusita dagoenez, idatzizko probak maiatzaren 5ean egingo dira, Barakaldon (BEC), eta ahozkoak ekainaren bigarren hamabostaldian.

[informazioa](#)

ARRETA-DEFIZITAREN ETA HIPERAKTIBITATEAREN NAHASMENDUARI BURUZKO III. JARDUNALDI TEKNIKOA

«ADHNarekin hazten: ikasi eta aritu».

Martxoaren 10ean, Bilbon, Abandoibarrean, UPV/EHuren Bizkaia aretoan.

[Egitaraua](#)

IX. JOANES ETXEBERRI SARIA, OSAKIDETZAREN GIPIZKOAKO ZERBITZU-ERAKUNDEETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ETA ZABALTZEKO ESPERIENTZIA ONENAREN TZAT.

Ekimenak edo lanak martxoaren 21a baino lehen entregatu behar dira Donostia Ospitaleko Komunikazioan, edo bertara postaz bidali. Informazioa: 837092.

KOLON ETA ONDESTEKO MINBIZIAREN PREBENTZIOARI BURUZKO ARDUNALDIA

«10 urtez herritarren osasuna hobetzen».

Martxoaren 22an, Vitoria-Gasteizen, Europa Jauregian

[webgunea](#)

GIZA ESKUBIDEEN 16. ZINEMALDIA

Apirilaren 20tik apirilaren 27ra.

[webgunea](#)

OEE, OSASUNGOA EUSKALDUNTZEKO ERAKUNDEAREN 28. OSASUN-BILTZARRA

«KOMUNIKAZIOA - INKOMUNIKAZIOA».

Maiatzaren 18an eta 19an, Arantzazun (Gipuzkoa).

[Egitaraua](#)

